



GEHIGARRIA

/erdiko orrialdeetan

## IMMIGRAZIOA

# Madrilek ezarritako kupoak milaka etorkin legez kanpo dauzka Euskal Herrian

Sasoikako lanetarako eta etxeko lanetarako enpleguak baino ez dituzte eskaini, guztira 668 lanpostu

Etorkinen egoera egunetik egunera okertzen ari dela salatu zuten atzo hainbat taldek Iruñean eta Donostian. Nafarroan, 6.000 etorkin bizi dira lan egiteko tramiterik egin ezinean; Gipuzkoan, berriz, 1.400. Espainiako Gobernuak Hego Euskal Herrian etorkinei lan egiteko jarritako kupoak eta egoera legezatzeko ezarritako trabak dira haien egoera okertzeko arrazoi nagusiak. 668 lanpostuko kupoak ezarri diete etorkinei, sasoikako 396 eta etxeko lanetarako 272. Arrazakeriaren Aurkako Eguna da gaur, eta hori guztia salatuko dute egunotan hainbat taldek. /11

## EKIALDE HURBILEKO GATAZKA

### Atentatuen gaineratik menia negoziatzen segitzen dute aldeek

Zortzi lagun hil dira Israelen, ekintzaile palestinar batek egindako eraso suizidan

Ekintzaile palestinar batek aldean zeraman bonba bat leherrarazi, eta zortzi lagun hil ziren atzo Israelen. Palestinar eta israeldarrek, ordea, su-etena negoziatzen segitu zuten. /19

## ATENTATUA ITALIAN

### Brigada Gorriek Gobernuaren aholkulari bat hil dute, tiroz

Italian eztabaida handia piztu duen enpleguaren erreformarako legean ziharduen lanean

Brigada Gorriak taldeak, 70eko eta 80ko hamarkadetan borrokan aritu zen talde armatu marxistak, bere gain hartu zuen atzo Italiako Lan Ministerioaren aholkulari Marco Biagiren hilketa. Herenegun gauean hil zuten Biagi, tiroka, Bolognan. Italian oposizioak eta sindikatuek gaitzetsi duten enpleguaren erreformarako legean ziharduen lanean. Biagiren hilketak mundu politikoa aztoratu du, eta Brigada Gorriak berriz piztu diren beldur dira. /20



GIORGIO BENVENUTI / EPA

Italiako Poliziako ikertzaileak herenegun gaueko hilketaren lekuan aztarnak bilatzen.

## GAURKO ELKARRIZKETAK



**MERTXE DE RENOBALLES**  
EHUko Farmazia Fakultateko katedraduna

«Jaki transgenikoek lagun dezakete gosearen arazoa konpontzen» /36



**GEMMA ZABALETA**  
PSE-EEko idazkari nagusi izateko hautagaia

«Egoeraren normalizazioa elkarrizketak ekarriko du» /6



**OSCAR FREIRE**  
Txirrindularia, munduko txapelduna

«Txirrindularitzan, egun, buruko indarra da erabakigarria» /30